



"Etxealdetik
Euskaraldira"
ekimena



Caritasen
lana
eskualdean



Odol
emaitzen
jokabidea



euskara bada errenta

**ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ**

APIRILAREN
6TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN
AUKERA



Informazio gehiago:
www.andoaindarraeuskaraz.eus
www.urnieta.eus





Lauri Eizmendik 25 urte bete ditu udaltzaintzan, horietatik azken biak zerbitzuburu bezala. AIURRI

"Urnietar gehiengoaren jarrera txalotzekoa da"

LAURI EIZMENDI URNIETAKO UDALTZAINBURUA

Udaltzaingoak 26 isun jarri ditu 35 egunetan, denak arriskupean zeudela oharra jasota, eta arauak hausten segitzeagatik. Herritar gehienek jarrera txalotzekoa dela dio

Andoni Urbistondo URNIETA

Zaintza lanetan inoiz baino zorrotzago dabilta Urnietako udaltzainak. Konfinamenduko arauak betetzeko ahaleginean, eta herritarren zalantzak argitzeko gertu. Zigorrek jartzeko ere bai, gutxi batzuen ustezko maltzurkeria jendarte osoari egin baitiezaioke kalte. Urnieta koronabirus gaitza nola eramaten ari den azaldu du Lauri Eizmendi Udaltzainburuak.

Zenbat urte udaltzain jardunean, Urnietan?

25 urte.

Eta Udaltzain buru?

Ia bi urte, Mikel Unanue erretiratu zenetik, hain juxtu.

35 egun konfinamentua hasi zenetik. Zer moduz Urnieta, urnietarrak, eta Udaltzaingoa?

Beno, guregatik hasita, ondo ikusten ditut lankideak, esfortzu handia egiten. Gu geu, brigada-koak, harrerakoak eta denak.

Egun asko dira, baina eusten. Urnietarrak ondo, zoriontzeko moduan, batez ere haurrak eta nerabeak, bere jarrera onagatik. Badago portzentaje txiki bat zaintza berezia eskaini behar dioguna, baina hori ere normaltasun baten barruan sartzen da, hala ez balitz gu hemen egotea ez litzatekeelako beharrezkoa.

Nola ari zarete lanean?

Zazpi udaltzain gara, eta hiruko bi talde ari gara, ni koordina-

tzaile. Uneoro hiru udaltzaineko talde bat lanean.

Covid-19ak zuen jarduera baldintzatu du?

Bai, erabat. Hasieratik ikusi genuen gai hau serioa izango zela, luzerako joko zuela. Aldaketa batzuk egin genituen lan egiteko moduan, kontrolak eraginkorrako izateko, herritarrek ohartarazteko. Errutina bat hartu dugu, eta horretan ari gara, jo eta su.

Nolakoa da zuen egunerokoa?

Goizero lanean dauden hiru lagunekin halako *briefing* edo egoeraren azterketa egiten dugu. Ondoren alkatearekin batzartzen naiz, egoera aztertu, dendak eta inguruak zaindu, harantz eta honantz dabilzanak zaindu, eta eguneroko gauzei ere adi egon. Aurrez aurreko salaketak egi-teari utzi diogu, alarma egoera dela-eta. Telefonoz edo postaz egin behar ditugu: bankuetako operazio okerrak eta beste. Hori da aldatu den gauza bakarretakoa. Jarduna, ba aholkularitza eta ohartarazpena beti, herritarrei, beste ezeren aurretik. Uler-tze aldera, esango nuke Rafa Nadal tenislariak baina ezker esku sendoagoa darabilgula isunak jartzen hasi aurretik. Koer-tzitiboak beste erremediorik ez dagoenean bakarrik gara.

Zer esan dezakezu herritarren jarrerari buruz, kontatu dezakezun arte? Esaterako, zenbat isun jarri dituzue?

26. Egunekeo bat baino gutxiago. Ikusiko da bukaeran, batez bestekoa altua edo baxua den, herri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera. Jakitun gara gutxiene-ko isuna dirutza dela, 601 euro, baina isuna jartzeraino iritsi bagara, beste erremediorik ez dugulako izan da. Isuna jarri baino lehenago herritarrek badaki arriskupean dagoela, baina batzuk beste guztiak baino bizkorragoak direla uste dute, listopasatu asko, nik esaten dudan moduan. Portzentaje oso handi bat sufritzen ari da konfinamentu neurriak jasaten, eta beste batzuk, aldiz, denerako eskubidea dutela uste dute. Beste herritarrei barre egitea dela uste dute.

Eta isuna jartzerakoan, nola erreakzionatzen du isuna jaso duenak?

Ba damua erakusten du, gaizki egin duela konturatu delako.

Kasuren bat aipa zenezake?

Beste herri batetik Urnietara ogi bila etorri direnak, dendara

joan eta ezer erosi ez, beste batera joan eta antzera, eztarrirako txilar ezia behar zuela, edota edateko txokolatea duela gustuko... Erosketak egitea derrigorrezkoa da, ogia adibidez. Egokiena erosketak behin eta elikagai asko egitea da, ez egunean lau aldiz.

Eta zuekiko, zer nolako pertzepzio sumatzen duzue herritarren aldetik?

Gure ustez, ona. Guregana edukaziaz eta errespetuz hurbilduz gero erantzun ona ematen dugula badakite.

12 koronabirus kasu daude Urnietan, Gipuzkoako kopuru apalenetakoa. Zer esaten dizu kopuru horrek?

Datu garrantzitsua da. Ez dakit gure zereginak datu horretan eragin handirik izango duen edo ez, baina nire lanbideaz harago, datu ona iruditzen zait.

Hildakorik ez du eragin, gainera, momentuz, Koronabirusak.

Guk dakigula, ez. Ea horrela jarraitzen duen, uste dut jende-ari animoak ematen dizkion kopurua dela.

Udaltzaingoak zarete, baina psikologoak ere bai. Herritar asko hurbiltzen zaizue...

Bai, kontsultak egitera, baina solasalditxo bat edukitzeko go- goarekin ere, arrazoia bat edo beste izan. Arazoak dituen jendea bada, haiek atenditu, lagundu eta aurrera.

Haurrak, kirola egiteko aukera... Nola ikusten duzu? Ze bilakaera eduki dezake konfinamentu honek?

Denok ari gara zigortuak izaten egoera honekin. Udaltzainok ere bai gure jarduna bukatzen dugunean. Haur eta nerabeak etxean sartuta hila-bete... horiek ari dira sufritzen gehien, nire ustez. Herriko gazte festak ere gertu daude, sumatzen hasiak dira bertan behera geratuko direla. Gero azterketak direla, unibert- sitateko kontuak... Ziurtasun falta ikaragarria dute, baina haien jarrera txapela kentzeko modukoa da, orokorrean.

Igandetik aurrera neurriak arinduta, zuentzat lan karga handiagoa, zaintza lanetan, ezta?

Jakina. Beharra ikusten dut, noski, baina kutsatze kopurua igotzen bada berriro zer? Jende-ari etxera bueltatzeko agindu berriro? Kudeaketa zailtasun ikaragarriak sortzen dituen egoera da. Inork ez daki benetan zer pasako den, eta egokia zer den jakin ere, inork ez, ondorioz. Zuen lan martxa zer moduzkoa da?

Egunaren arabera. Batzuetan hobe, besteetan ez hainbeste. Talde ona osatzen dugu, udaltzain garenak, udaletxean eta beste, eta gure jarduna betetzeko indartsu sentitzen gara.

Jendartearen alde onak erakusten ari da Covid 19a, baina txarrenak ere bai: arauak arduragabe hausten dituenak, edo salatari bilakatzeko tentazioa dutenak, etxean amorratuta irten ezinik...

Jendeak badaki zer egiten ari den, eta ze arrisku hartzen dituen, arauak errespetatzen ez baditu. 601 euro ez da broma. Badago herritarren portzentaje txiki bat ez duena ulertzen, edo ulertu nahi ez duena, bere arau haustea suposa dezakeen kaltea. Araua hausten duenak kutsa dezake, eta kutsatua izan daiteke. Hau esatea nire partetik maltzurra dela usteko dute askok, baina akaso herrian hildakoren bat izanez gero etxeratze arauak zorrotzago beteko genituzke. Saiatu behar dugu heriotzak saihesten. Nola? Herritar gisa kontziente izan eta arauak ez hautsiz. Udaltzaingoaren beharrik gabe, ahal bada, norberak zuzen jokatzuz.

Ze zeregin gertatzen ari zaizue zailen, aste hauetan?

Ziur aski indarrean jartzen diren arau berriak ikasi eta interpretatzea. Egunero iristen dira, egunero aldatzen dira arauak, eta guk oso adi egon behar dugu, BOE argitalpenari erreparatuz. Herritarrek kontsulta asko egiten dituzte, eta erantzun zuzena eman behar diozu. Gerta liteke gaur arau haustea ez dena, bihar izatea. Tentuz aritu behar gara. **Pentsatzen dut zuek segurtasun eta osasun neurri zorrotzekin ari zaretela lanean.**

Zalantzarik ez, kalean eta herritarrengandik gertu ari baidakara lanean. Autoak ozonoarekin garbitzen ditugu astean behin, aldagelak goitik behera, buzoak jardun berezietarako, esku larruak, maskaratzoko eredu pare bat, behararren arabera.

"JENDEA MUGA-MUGAN DAGO, BAINA GU ARAUA HAUSTEN DUTENAK ZIGORTZEKO GAUDE"

Gu hasieratik ari gara maskaratzokoarekin lanean.

Hainbat muga-muga daudela entzuten da han eta hemen, 'kalera ateratzeko baimena ematen ez badute, ni atera egingo naiz', eta antzekoak entzuten dira. Zer diozu, hori entzutean?

Ulertzen dudala esango nizuke. Badakigu jendea muga-mugan dagoela, baina gure zeregina isuna jartzea da. Eta gu isunak jartzera behartzea gu konpromiso batean jartzea da, ez baitugu isunik jarri nahi. Neurriak ondo betetzeak pandemiaren bukaera azkartu dezake.

Zein mezu emango zenieke, herritarrei?

Eusteko, eta denak ospatuko dugula, pandemia bukatzen denean. Maiatza ere joango zaigu, agian, egoera aldatu arte, beraz pazientzia.

"GEHIENEN JARRERA TXALOTZEKO DA, ETA HAUR ETA NERABEENA TXAPELA KENTZEKO MODUKOA"



Pazientzia eskatu die herrikideei. Urnietako Udaltzainburuak. AIURRI



Etxealditik

EUSKARALDIRA

Ohitura aldaketa etxetik hasten da




@euskaraldia


@belarripest / @ahobizi

www.euskaraldia.eus/etxealdia

Ondo merezitako txaloak

Berrogei egunez jarraian, iluntzeko 20:00ak iristean, etxeko leiho eta balkoi askotara jendeak txalo egiteari ekiten dio. Osasun arloko profesionalen aldekoa da, eta keinu horrekin oso eskertuta daude. Askok eta asko hunkitu egiten dira

Erredakzioa ANDOAIN/URNIETA

Aiurri astekariaren urteko egutegiari erreparatuta, Ostiral Santuan eta Pazko Astean ez da astekaririk argitaratzen. Webgunean, ordea, ekimen handiko egunak izan dira. Eta osasun arloko profesionalen egindako elkarriketak irismen handia izan dute.

MARTA LOPEZ • ANDOAIN

Apirileko lehen Aiurri astekariari eskaini zion elkarriketan, Iruñean lan egiten duen erizainak kutsatu ondorengo prozesua nola izaten ari zen azaldu zuen. Etxean eta haur txikiekin, baktazearen egunerokoa agertu zion Aiurriri. Osatuz gero helburu bakarra zuen: lanera itzultzea. Ogibidea maite zuen, eta bere betebeharrak gaixo zirenen alboan egotea zela zioen. Bada, asmo hori bete ahal izan zuen. Apirilaren 11n itzuli zen lanera. Larunbat horretan bertan aterako argazkiak helarazi zizkion Aiurriko lantaldeari, eta sareetan arrakasta handia izan zuten. Txalotzekoa da Martaren kementa.

IDOIA ARRONA • URNIETA

Larrialdi zerbitzuetan ari da lanean, administrari modura. Kutsatuak eta haren laguntzaileak larrialdi eremura sartzen direnean, eurak izaten dira arreta eskaintzen lehenak. Aiurri.eus gunean irakurgai dago elkarriketa osoa. Bere azken hausnarketak zer pentsatua ematen du: "Xomorro batek mundua gelditu duen bezala gelditzea izugarria egiten zait. Gainera, inor diskriminatzen ez duen xomorroa da. Alegia, pobre eta aberatsei neurri berean eragiten diela, horrek ematen dit arreta. Eta bigarrena, mugitu

mendu faltaren, konfinamenduaren ondorio osasuntsuak. Kutsadura murriztu da asko, eta zer pentsatua ematen du xomorro batek ze eragina eduki duen mundu osoan".

INTZA CABRERA • URNIETA

Urnietar gazteak bikain deskribatu zuen Alarma Egoerarekin sortzen diren betebeharrak, zeinean ezezkoa esatea ezinezkoa bilakatzen den: "Erizaintza bukatu nuenetik emagin izateko espezializatzen ari nintzen. Formakuntza eten eta Eibarreko ospitalean lan egitera bidali gaituzte; beste ospitale batzuetatik datozen Covid-19 (+) diren eta gabezia kognitiboa duten pazienteentzako ireki duten plan-ta batera. Ez dugu ezetz esateko aukerarik izan, hortaz, beldurra zen lehen azaldu zen sentimendua. Behin lanean hasi ondoren, laguntzeko gogoak indar handia hartu du, gure egoera ez delako erraza, baina pazienteak dira benetan egoera gogorra bizitzen ari direnak: beren familiengatik urrun, bakarrik beste hiri bateko ospitalean, telebistatik gabe... isolatuta daude".

NAHIKARI SANCHEZ • URNIETA

Krisiak agerian utzi ditu sisteman dauden gabeziak. Bere gordintasun osoan ondoriozta daiteke hori, Nahikariaren adierazpenak irakurrita: "Egiten ari garen esfortzu hau etorkizun batean kontuan hartzea espero dut, horrela, gure lan baldintzak hobetuz. Hainbat urte atzera murrizketak egin zirenean osasungintza, eta hala ere, %150a ematen jarraitzen dugu. Lan karga handia da zenbait lekutan, eta lan baldintzak aipatzeak lotsa ematen dit. Neronek, esaterako, abenduan hamar kon-

tratu baino gehiago izan nituen, alde batetik bestera, leku ezberdinetan denak, lotsagarria!".

IDOIA GORROÑO • URNIETA

Tesi horren ildotik, bere ogibidea pasioz bizi duen beste urnietar baten eskutik: "Bokazioa badago ospitalean, eta jendea lanerako prest dago. Hori zaindu egin beharra dago, langilegoa gustura eduki behar baita. Zeren eta langileak zein baldintzatan daude? Erizainon lan-kontratuak oso motzak eta aldakorak izan ohi dira, eta nekez har ditzakegu oporrak denboraz. Hau eta gero, espero dugu pixkanaka aldaketarako urratsak ematen hastea".

LEIRE IBARBIA • URNIETA

Gabeziekin amaitzeko desioa agertu zuen Ibarbiak, etorkizuna hobea izan dadin: "Erronka hau gaintitzean ikerketa, osasun ikasketetan, osasun sistema eta osasun materialen hornikuntzan aldaketak egotea espero dut". Ez du alde batera utzi nahi ere gertaeraren larritasuna: "Ez geunden horrelako pandemia bati aurre egiteko prest. Donostialdeko eremuan ikusten dut bertako langileak eta ospitaleko nagusiak %150a ematen ari direla lanean".

MALEN OTXOA • ANDOAIN

Segurtasun eza eta estres egoera orokorra izan bada ere, pazienteekiko jarrera ondotxo azaldu zuen Otxoak: "Pazienteengana irribarre batekin joaten ahalegindu gara, gehienak beldurtuta daudelako gaixotasun berri honen aurrean. Ospitalean ingresatua zaudenean, babesgabe sentitzea ohikoa da. Esker oneko hitz eta mezu ugari jaso ditugu haiengandik".



Nahikari Sanchez.



Malen Otxoa.




Intza Cabrera Jauregi.



Marta Lopez.



Leire Ibarbia.



Idoia Arrona.



Idoia Gorroño.

Selektibitatearen ateetan, zain

INKESTA IKASLEEN ARTEAN Luze eta zabal, Aiurri.eus webgunean. Galderak:

1 Selektibitatea atzeratu dutelako kezkatuta zaude? **2** Zure esku egongo balitz, azken notarekin zer egingo zenuke? **3** Konfinamenduan zer da faltan botatzen duzuna?

Erredakzioa ANDOAIN/URNIETA

Birusak bete-betean harrapatu ditu selektibitatea egiteko prestakuntzan murgilduta zeuden ikasleak.

UNAI IRAOLA • URNIETA

1 Zertxobait bai, izan ere, ez da kit benetan prest egongo garen selektibitatearako. Eskola ikastolan bertan egin edota *online* egitea ez baita berdina.

2 Ez nuke aprobatu orokorra proposatuko, baina bai selektibitatea bertan behera uztea eta azken ebaluaketa hau, etxean eginiko lanen bidez ebaluatzea.

3 Gehienbat lagunak eta kirola. Nire dantzako kideak izugarri botatzen ditut faltan, haiekin batera egon eta dantzatzea. Ikastolako jendea ere ezin dut burutik kendu, bizitzan lehenengo aldiz ikastolara joateko gogoia dudala esan dezaket.

MARIA MURO • URNIETA

1 Noski. Pandemiarik gabe ere kezkatuta nengoen selektibitatearekin, baina egoera honek egonezin handia sortu dit.

2 Oso zaila da erabaki bat hartzea. Zorionez, bigarren ebaluazioa amaitzeko astia eman zigun. Bi horiekin bataz bestekoa egitea zentzuduna iruditzen zait.

3 Mugimendua botatzen dut faltan, dena dago geldia, triste da. Jendea orokorrean, familia eta lagunak batez ere. Eta bestela nire errutina "normala": dantza egitea, autobusa hartzea, ikastolara joatea etab.

IKER GODOY • URNIETA

1 Ikasturtean zehar ez naiz gehiegi kezkatu selektibitatearekin. Egunerokoa nahiko ongi eraman dut eta nahiko lasai nengoen egoera hau jazo den arte.

2 Ez da erraza horrelako kasuetan erabaki egoki bat hartzea, baina aprobatu orokor bat ematea ez zait oso bidezkoa iruditzen. Ebaluaketa hau ikasle bakoitzak etxean egin duen lanaren arabera ebaluatuko nuke.

3 Gauza asko botatzen ditut faltan: aire librean kirola egitea, lagunekin eta neska-lagunarekin denbora pasatzea, lehengusuekin eta familiarekin egotea, taldekideekin entrenatzea, mutilak entrenatzea etab.

UXUE MARIÑELARENA • URNIETA

1 Bai, ikaslek kezka genuen; bagenekien selektibitatea ez zutela kenduko, eta denak noiz jarriko zutenaren zain ginen.

2 Nik, orain arteko nota hartuko nuke kontutan, hau da lehen eta bigarren ebaluaketak, edo bestela, lanen bitartez jarriko nituzke hirugarren ebaluaketako notak.

3 Etxetik ez ateratzea eta lagunekin egoteko aukerarik ez izatea da okerrrena. Teledeia bidez hitz egiten dugun arren, ezin da elkarrekin egotearekin alderatu.

LILI ZUBELDIA • ANDOAIN

1 Bai, nahiko kezkatuta nengoen —eta hein batean oraindik ere kezkatuta jarraitzen dut— selektibitateari dagokionez.

2 Zaila da horrelako egoeran modu egokia topatzea. Horrexegatik, aprobatu orokorra bezalako prozedura bat hartuz gero, ados egongo nintzateke, nahiz eta ez zaidan irtenbide hoberena iruditzen.

3 Konfinamenduaren aurretik ez nintzen oso kale-zalea, baina orain, etxetik atera ezinik gaudela, lagunaren konpainia, familiaren goxotasuna, kaleko bizitza... botatzen ditut faltan.

Eguneroko gauza txikiak dira egoera honetan izaugarritzko garrantziarekin ikusten ditudanak.

OIER ZABALA • ANDOAIN

1 Bai, etxean egoteak eskolan generaman erritmoa jaitsiarazi duelako. Beraz, atzerapenarekin lasaiago geratu naiz, baina oraindik kezkatuta nago egoera hau luzerako izango dela baitirudi.

2 Nire ikuspuntutik ez nuke selektibitatearik egingo eta batxilergoan zehar ikasle bakoitzak lortutako noten batzbestekoa hartuko nuke kontuan. Nire ustez justuagoa izango litzateke.

3 Gehien faltan botatzen dudana kalera ateratzea, eta lagun eta ezagunekin egotea da. Telefono bidez ikustearekin konformatu behar naiz. Kirola ere botatzen dut faltan, ez da berdina etxean egitea edo kiroldegian. Eguneroko bizitza da azken finean faltan botatzen dudana.

EIDER AZPILLAGA • ANDOAIN

1 Bai, gure etorkizuna dagoelako jokoan eta orain gutxi arte ez genekielako noiz egingo genuen.

2 Denei gainditu orokorra agian ez, baina bai orain arte egin duguna kontutan hartu eta selektibitatea kendu.

3 Lagunekin kalean egotea, lehen egiten genuen edozein plan eta egunerokotasuna.

ASIER ARNAZ • ANDOAIN

1 Atzerapenarekin ez nago kezkatuta, azkenean beranduago egingo dugu eta listo, baina bai probarako ikasi beharko dugun edukiarekin.


2 Niretzako bi bide daude, selektibitatea kendu eta batxilergoko notak kontuan hartzea da.




Maria Muro.




Unai Iraola.




Iker Godoy.



Asier Arnaz.




Oier Zabala.



Lili Zubeldia.



Eider Azpillaga.



Uxue Mariñelarena.

3 Normaltasuna, kalera ateratzeko aukera izatea inolako distantziarik gabe edo maskaretan pentsatu gabe.

Zortzi ikasleren adierazpenak luze eta zabal www.aiurri.eus gunean argitaratu dira, aurreko egunetan.



Ana Azpiazu.



Joseba Oyarzabal.

Lana eta telelana krisi garaian

Lanbide oso ezberdinetan ari dira lanean. Kasu batzuetan, gainera, ez dute etenaldirik izan eta lanean jarraitu ahal izan dute. Lanaldiaz eta prebentzio neurriez iritzia eman diote Aiurriri. Luze eta zabal www.aiurri.eus webgunean



Mikel Zurutuza.



Ernesto Montes.



Juan Miguel Perurena.



Garikoitz Goñi.

Andoni Urbistondo URNIETA
Zenbat buru, hainbat aburu. Lanera itzulera, telelana, konfinamendua... Hona sektore ezberdinetako sei langileen iritzia.

ANA AZPIAZU • URNIETA
Donostia albitari ospitalean lanean aritzen da.

Ados zaude Espainiako Gobernuak derrigorrezkoak ez diren sektoreetako enpresak lanera bueltatzeko hartu duen erabakiarekin?

Lanera bueltatu behar dela argi dago, eta jendeak beldur duela ere, baina, inoiz gertatu ez den egoera batean buruz buru sartu gara, eta irten ere egin beharko degu, normalitatera iritsi arte. Zein den momentu egokia lanera bueltatzeko, zaila da jakitea, baino oreka bat lortu beharra dago. Datorren hamabostaldia izango dela suzko frogara, ea zer gertatzen den kutsatu berri kopuruarekin.

JOSEBA OYARZABAL • URNIETA
Joseba Oyarzabal urnietarrak aulki, mahai eta kanpinetako materiala egiten duen Enea Design enpresan produkzioaren planifikazioa antolatzen du.

Zure enpresak hartu dituen segurtasun neurriak nahikoak direla uste duzu? Lasai ari zara lanean? Lanera joateko garraio publikoaren erabiltzaile bazara, segurtasun neurri nahiko ikusi duzu?

Telelana bultzatu da eta langileei aukera eman zaie bitartekoak emanez. Uste dut azkar antolatu zela enpresa. Fabrikara joaten naizenean ere lasai joaten naiz, batez ere ikusita langile guztiok betetzen dugula protokoloa. Gaia serio hartu da.

Ados zaude Espainiako Gobernuak derrigorrezkoak ez diren sektoreetako enpresak lanera bueltatzeko hartu duen erabakiarekin?

Bai, gai izan beharko genuke dagoen aktibitate minimoa jarraitzen. Hala ere ikusiko da neurri berriak ze eragin duen pandemian. Datuek hoberantz jarraitzen badute konfiantza emango luke hartutako neurrietan. Aldiz, kontrakoa gertatuko balitz, atzera pauso handia litzateke. Datuetan dago koska.

MIKEL ZURUTUZA • URNIETA
Jabe enpresako langilea da, Andoainen.

Zer deritzozu hainbat sektore lanera itzultzeari?

Zalantzak ditut. Batzuentzat ekonomiak du lehentasuna, besteentzat osasunak, eta hor talka sortzen da. Nire ustez osasuna lehenetsi beharko litzateke aurrena. Ekonomia indartuko bada, osasuntsu gaudelako izango da, baina bakoitza berera ari da hemen, eta hori da arazoa.

ERNESTO MONTES • URNIETA
Transformagailu elektrikoetarako bobinak egiten ditu Astigarragako Eremu SA enpresan.

Zure enpresak hartutako segurtasun neurriak egokiak direla uste al duzu?

Ez. Ez da gure kasua, baina EPI asko eman izan balizkigute ere ez lirateke nahikoak. Maskarata bakarria eman digute, baina erabilpen bakarrekoa da. Erabiltzen ditudan esku larruek ordubete ere ez dute irauten nire lanpostuan, eten gabe haus-ten dira, eta tailerrean elkarri kutsatzeko arriskurik ez dagoenik ezin digu inork bermatu. Esku larru, maskarata eta desinfektatzeko gelak ez dira eraginkorrak erabat, osasun langileei erreparatu eta jabetzen gara horretaz. Haiek erabiltzen dituzte, baina euren artean kutsatze tasa ikaragarria da.

Zuzena iruditzen al zaizu Espainiako Gobernuak derrigorrezkoak ez diren jarduerak baimentzeko neurria?

Ez, oraindik pandemiarekin bukatzeko egoera urrun dagoelako, eta baimen horrek pandemiaren luzatzea ekarriko duela pentsatzen dudalako.

J.MIGUEL PERURENA • URNIETA
Juan Miguel Perurena Lizeaga tren gidaria da, Euskotrenen.

Zure enpresak hartu dituen segurtasun neurriak nahikoak direla uste duzu? Lasai ari zara lanean?

Tren gidarientzat segurtasun neurriak kostata ailegatu dira. Adibidez, maskarata apirilaren 8an jaso genituen. **Ados zaude Espainiako Gobernuak derrigorrezkoak ez diren sektoreetako enpresak lanera bueltatzeko hartu duen erabakiarekin?** Beharrezkoak diren segurtasun neurriak bermatzen dituzten enpresetara lanera bueltatzea ez dut gaizki ikusten.

GARIKOITZ GOÑI • URNIETA
DHL Supply Chain enpresarentzat ari da lanean. Ingeniaritza logistikoa Europa, Asia ekialdea eta Afrikarako proiektuetan, zehazki.

Nolakoa izan da zure lanerako bultzada?

Ez diot lan egiteari utzi. Etxetik lan egin dut. Inoiz baino ordu gehiago, egia esan.

Zure enpresak hartu dituen segurtasun neurriak nahikoak direla uste duzu?

Nire kasuan enpresak jarritako neurriak egokiak izan dira. Nire lan motak etxetik egiteko aukera ematen dit eta enpresak aukera hori bermatu du.

Elkarriketak, osorik, aiurri.eus webgunean.



Kultur sektorea kinka larrian

Euskal kulturgileen sektorearen zati handi batek greba digitala egin zuen, apirilaren 21ean eta 22an. Zuzeneko ikuskizunetan profesional modura aritzen diren bi lekukotza hauetan panorama iluna dela argi geratzen da

Erredakzioa ANDOAIN

Ostalaritza sektorekoekin batera, kultur arloko profesionalen egoera ez da batere samurra.

IZASKUN FORKADA • ANDOAIN

Aspaldian Zarautzen bizi bada ere, aski ezaguna da Andoainen. Dantzaria, koreografa eta azken urteetan haur ikuskizunetan ikusi ohi dugu Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin batera.

Astebururo Euskal Herrian zabilta, eta bapatean etxean geratu behar izan duzu. Zure lanaldia, nagusiki, jendaurreko haur ikuskizunetara bideratuta dagoelako. Zer nola bizi duzu ez ohiko egoera hau?

Ezjakintasuna, beldurra, kezka... hori da sentitzen dudana. Astebururo pailazoekin Euskal Herrian barrena nabil, eta astean zehar ere saioak izaten ditugu. Baina bapatean hau gertatu da eta ez dakigu zer gertatuko den, zeren eta egunero albisteetan gauza ezberdinak esaten dituzte. Gauza asko pasa zaizkit burutik, baina nola ez dakigun ezertxo ere, etxean eta kezkatuta egon beharra daukagu.

Lanik gabe, langabezia duzu irten-bide bakarra.

Bai, langabezian nago. Etorrizunaz ezer gutxi dakigunez, ez dut gehegi pentsatu nahi horretan. Saiatuko naiz nire egunero-kotasunean ahal dudana hoberen egoten, eta horrela hobeto sentituko naiz. Bestela depresio batean sartuko gara guztiok.

Noizko uste duzu iritsiko dela normaltasuna?

Luze joko du egoerak. Normaltasun batera iristeko pentsatzen dut urte osoa pasa beharko dela. Nahiko nuke irailean lanean berriro hasia. Udaberria eta uda pasa, eta irailerako lanean hasia.



Karlos Arancegui musikaria.

KARLOS ARANZEGUI • ANDOAIN

Sortzez tolosarra, urteak dira Andoainen bizi dela. Mikel Eren-txun, Rulo y la contrabanda, Elena Setiene edota Don Inorrez taldeetako musikaria da.

Musikari profesionala zara, eta egun hauetan Ama Kandidan duzun lokalean entseatzeko aukera duzu. Hortik aurrera, ezer gutxi.

Ia profesional guztiak bezala, etxean geldirik nago. Egoera zaila da. Zuzeneko emanaldietatik bizi den musikaria naiz. Etxean zain egotea besterik ez da geratzen. Albisteekin zain. Albisteak egunetik egunera aldatzen doaz. Ezin jakin zer gertatuko den hemendik bi astera edo hilabetera. Musikari bezala hitz egiten dut, baina gure arloan hainbat eta hainbat profesional daude; gidaria, managerra, teknikaria etab. Guztiak ere berdin gaude, kezkatuta. Ez baitakigu zer gertatuko den, eta ezin da jakin. Orduan, ahalik eta lasaien hartu eta itxaron. Pazientziatz eta lasaitasunez hartu beha dugu. **Egun batetik bestea bizimodua erabat aldatu zaizu, Karlos.**

Azken urte hauetan asko aritu naiz jotzen. Astebururo, joan-



Izaskun Forkada dantzaria.

etorrian ibiltzen nintzen. Asteburuan 0tik 100era pasatzen ginen, eta etxeko lasaitasuna gustura hartzen nuen. Hori erabat aldatu da. Hilabetea darabagu, eta egoerara egokitzen ari gara.

Etorkizunarekin kezkatuta zaude?

Bai, nire jardueraren jendaurrean jotzea baita. Hori debekatu egin dutenez, ezin dut lan hori bete. Beraz, lanik ez daukat, ezta diru-sarrerik ere. Egoera larria da, ez baitakigu noiz arte luzatuko den.

Zu zeu autonomoa zara.

Egin dut eskaera, eta erantzunaren zain nago. Duela gutxi Lanbidek 3.000 euroko laguntza atera du autonomo bakoitzarentzat, baina poltsa 3 milioi eurokoa zen, beraz, mila pertsonentzat, eta Euskadin 170.000 autonomo gaude. Badirudi beste eskaintza bat egingo dutela.

Lanera itzultzea, hortxe helburua. Urruti ikusten dut hori. Jende asko mugitzen den kontzertuei dagokionez, behintzat, aurten ez da horrelakorik izango. Sarrerak mugatzea aukera bat da, baina hori errentagarria izango al da?



IRITZIA

GARBIÑE AGIRRE ANDOAIN

Sumatu ote dugu isiltasuna?

21ean eta 22an greba egingo zutela iragarri ziguten eta beraien protesta ulertu eta babestu du batek baino gehiagok. Eta nonbaiten sinatu behar bazen, gutako asko eta asko, sinatzeko prest.

Laguntzen garaian azkeneko zirela esatera altxatu zirelako iragarri ziren kultur arloko kaltetuentzako laguntzak. Baina laguntza horiek ze gastu mota estaltzeko izango dira? Kateko zein mailaraino iritsiko dira?

Konturatzen ote gara kultur sormena guregana iristeko zenbat eta zenbaten lanari esker iristen zaigun? Musika-errentzako **soinua**; dantza-errentzako **zorua**, antzezlanen **argiztatzea**; pelikula botatzeko **“makinista”**... soinu eta argiztatze ekipo horien **garraioa** eta **zamaketa** lana. Kate-maila horretako katebakiak osatzen duten kultur zerbitzu eta autonomo eta langileak lanik gabe geratu dira dagoeneko, eta bere lanera itzultzeko aukerak **ilun**.

Andoainen, pandemia honen eraginez, besteak beste, hainbat aukera galduko ditugula garbi dugu: 1) Festen aitzakian antolatutako musika emanaldiak –herriko nahiz kanpokoek eskainiak– 2) Ekaineko Rock Jaialdia, non Euskal Herriko zein nazioarteko talde bikainen doinuez gozatzen dugun;

3) Gazte, haur edo helduentzat antolatutako dantza zikloa;

4) Oreka Tx-en lan berria ezagutzea; 5) Saritua eta iragarrita zegoen “Parásitos” filma ikustea; 6) Jailetako bertso saioak; 7) Kattalin Miner idazlearekin bere liburuaz irakurleonek iritziak partekatzea eta abar luzea.

Baina, zertara dator gure herrian aurrera eramango ez diren festa, jaialdi eta kultur izaera duten ekitaldien zerrenda aurkeztea? A ze kaikuherria pentsa dezake honaino irakurtzera iritsi den batek baino gehiagok.

Gabezia horien ondorioz, lanik gabe dauden gure herriko edo Andoainen, gure kultur jardueran lan egiten eta izenez ezagutzen ditugun hezur haragizko pertsona hauek denak aipatzea merezi duelako, bere lana ikusgarri egiteko eta beharrezkoa duten elkartzasuna izango dutela adierazteko. Erakundeek laguntzaz gain gurea ere beharko dutelako.

Beraz, Eragin-Stac-eko **Asier, Jon, Marta, Josu, Itzi, Txefo, Inma, Laura, Xabi, Amal...**, Hirutek-eko **Ugaitz, Agurtzane, Arantza, Txarli...** NSound-eko **Aritz, Elena, Oskar, Maider, Aitor, Mikel, Andoni** izan ezazue zuen lanarekiko aitortza eta elkartzasuna lerro hauen bidez. Gure esku ere egongo da zuek lanera itzultzea.

Internet txartelak

Udalak Ondarreta, Aita Larramendi eta La Salle Berrozpeko familien beharrak identifikatu ditu, eta interneterako konexioa duten 60 SIM banatuko ditu. Izarkom kooperatibarekin hitzartutako eragiketa izan da. Gailuek 17 GB-ko ahalmena dute. Erabilera erraza dela adierazi dute.



Lanean ari diren merkataria

Urnietako Udalak zabalik dauden merkatalguneen zerrenda argitara eman du. Eta horrez gain, merkatariei animoak helarazteko bideoa landu du. Lanean ari diren bi merkatarien lekukotza jasoko dugu, azken egunetan



Muazpi harategiko Peio Urretabizkaia.

Erredakzioa URNIETA

Harakinak hausnarketa prozesu sakona egin duela nabari da.

PEIO URRETABIZKAIA • MUAZPI Zer moduzkoa izaten ari da lanaldia hain egoera berezian?

Esango nuke ikasten ari garela. Gogorra izaten ari da, lan ordu asko, batzuetan urduri generoa iritsiko den, nahiko genero izango dugun, jendeari zerbitzu ona eskaintzen ari garen. Alderdi horretatik nahiko kezkatuta. Baina bestalde pribilegiatu batzuk garela gure negozioa mar-

txan dagoelako. Era berean gogoan ditut euren negozioa itxita dituzten merkataria.

Zein ondorio atera ahal daitezke krisi honetatik?

Erlatibizatzen ikasi beharko dugu. Elkarlana, herri izaera eta benetan garrantzitsua dena baloratzea, akaso. Harreman asko ez genuen jendearekin orain harremana edukitzen ari gara. Elkar ezagutze horrek, akaso, aurrera begira aukera berriak irekiko ditu. Alde horretatik interesgarria da bizitzen ari garen prozesua.

Salmentan aldaketarik bai?

Prestatutako plater asko saltzen dugu guk eta konturatu gara joera aldatzen ari dela. Familian gehiago prestatzen dute orain, normala da, denbora gehiago daukatelako. Eta uste dut haurrei eta seme alabei begira oso ekin-tza garrantzitsua dela. Seme-alabek hori ikustea oso garrantzitsua dela.

Merkataritzaz zer esan dezakezu?

Oso gogoan ditut ateak itxita dituzten merkataria. Gainera iruditzen zait informazio falta handia dutela eta ez zaiela egia

esaten. Jendeari egia esan behar zaio, planifikatu dezan zer egin behar duen hilabete horretan. Nik uste ezinbesteko exigentzia dela diru laguntzak eskaintzea; zeren diru laguntzarik gabe oso zaila izango da aurrera egitea.

Urnietari begira, saiatu beharko dugu hobeto gaudenak okerrago daudenekin eskuzabal izaten, eta ia asmatzen dugun aurrera egiten.

Eta, oro har, zein da zure hausnarketa pandemiaren harira?

Panorama argitzen ari da pixkat, informazioa trukatzeko delako,

gehienetan zehatza. Hala ere agintariei informazioa geldoegi ematen ari dira. Iruditzen zait herritarrek konfiantza askoz ere handiagoa behar duela. Herri honek erakutsi du eskatuz gero beharrezkoa egiteko prest dagoela. Beraz, pentsatzen dut agintariei kosta egiten zaiela egia esatea, eta nik uste egia esan behar dela eta jendeari planteatu behar zaio egoera bere gordintasunean.

Elkarrizketa bere osotasunean aiurri.eus webgunean.

Loude Lizaso dendaria


Goiz guztia jo eta su darama jardunean, arnasa hartzeko tarterik gabe, ia-ia. Nahikoa da bezeroren batek hiruzpalau elikagai erostea, ilara biderkatzeko: "Normalena behin etorri eta gauza asko erostea litzateke, egunero ogia erostera etorri baino, ezta?", dio Lourdesek. "Aste honetan norbaitek 10 ogi barra eraman zituen etxera, eta beste bezeroak harrituta. Niretzat denok hala egin beharko genuke. Gutxiago etorri, eta gehiago erosi, egunero erostera etorri baino. Baina, egunero

kalera ateratzeko aukera bakarretakoa da dendara etortzea...". Ogia, fruta, berdura apur bat, esnea... Oinarritzako erosketa egiteko minutu batzuk behar dira. Zortzi bat lagun ilaran, "ene!" botatzen du Lourdesek. "Bezeroek ordu laurden itxaroteko pazientzia baldin badute, langile garenok ere neurriko pazientzia erakustera behartuta gaude, gutxienez".

Jendea urduritasun puntu batekin ikusten du: "Batez ere bakarrik bizi den jendea. Azkar nabaritzen da hizketarako

gogoarekin datozela". Zerbitzari eta psikologoa da Lourdes, erdi eta erdi: "Etorkizunari buruz mintzatzen dira asko. Ez dakit zer gertatuko den, baina askok panorama beltza aurreikusten dutela sumatzen dut".

Halaxe joaten zaizkio egunak Lourdes Lizasori. Bezeroari plastikozko esku larruak janzteko eskatu, demanda bildu, sosak eskatu, ilarari erreparatu, eta konturatzerako, ixteko ordua iristen zaiola jabetu da. Bihar beste egun bat izango da. Egun bat gutxiago ilaran zain egoteko.



Urnietako Idiazabal kalean dago Itxaspe.



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goienna Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** BATZETZ MOKAIA

ALIATUAK: **INSTITUCIO** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hirukuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bikam**

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.





Odol-emaileak Andoaingo Arraten, joan zen apirilaren 14an. AIURRI

Odol-emaileen erantzun bikaina

Ez ohiko egoeran, eta prebentzio neurriak muturrera eramanez, apirilko odol-ematea Arrate pilotalekuan antolatu zuten. Aldez aurretik izena-emateko aukera eman zuten, eta azkar batean bete zen 40 lagun zerrenda. Erantzun bikaina, odol-emaileena

Xabier Lasa ANDOAIN

Naroa Ubillos erizaina Andoainera odol erauzketak egitera hilero, bigarren asteartean etorzen den osasun taldeko kidea da. Osasun krisialdi larriak odol ematearen dinamika ezin duela eten adierazi du. "Beharrezko segurtasun neurriak hartuta, normaltasunari eutsi behar zaio".

Prebentzio neurriak direla eta, hitzordua telefonora hartzeko eskaera luzatu zieten Andoaingo odol emaileei: "40 laguneko kopurua jarri dugu, mugargisa. Gainera, anbulatorioetik Arrateko pilotalekura ekarri dugu espazioa. Printzipioz, bazirudien jendea etxetik ateratzea kosta egingo zitzaioela, baina alderantziz gertatzen ari da. Gipuzkoa osoan bezala, Andoainen ere bikaina izan da herriarren erantzuna; berehala bete dira jarritako txanda guztiak. Eman gabe geratu den horri esan behar zaio badaukala odola emateko aukera Gipuzkoako Odol emaileen elkarteak Donos-

tiako Manuel Lekuona kalean daukan egoitzan, goiz edo arratsalde astelehenetik ostiralera, eta goizez larunbatetan".

Ubillosek uste du handitu egin dela jendearen motibazioa, azken asteetan. "Jendeak beti dauka arrazoren bat odola ematearen konpromisoari eusteko. Eta orain, osasun arazo handia bizi dugula-eta, iruditu zaio hori dela gizartearen alde egin zeza-ken ekarpenetako bat".

Koronabirusak eragindako osasun krisiak ez du odolaren premia areagotu, Naroa Ubillos aitortu duenez. "izatekotan ere, gutxitu egin da, normaltasunezko egoera batean baino operazio gutxiago egiten baitira eta istripuak ere asko jaitsi bai-

AZKAR BETE ZEN IZENA EMATEKO ZERREDA. 40 LAGUNEK EMAN ZUTEN ODOLA

tira. Baina beti da behar-beharrezkoa odola laborategietan eta odol bankuetan erreserban edukitzea, behar denean erabiltzeko edo iraungitzen denean ordezkatzeko. Horrexegatik, orain ezin gara erlaxatu".

Nahia Artola

"Tolosan ikasten ari nintzela, erizainak ikastetxera etortzen ziren odola jasotzera, eta orduz geroztik naiz emaile. Andoainen urtean lau txandatan azaltzen naiz, normalean. Gaurko saioa desberdina izan da, arraroa. Eskularruak eta maskarilla jantzi-ta aritu behar izan dugu".

Ekaitz Olló

Andoainen zabaldu duen deialdi bereziari erantzuteko konpromisoari heldu zion. "Deialdi berezia egin digute, eta bi aldiz pentsatu gabe goizean hots egin, eta hitzordua hartu dut. Aurreko hilabeteen kale egin nuen, eta gaurkoan ezin nuen huts egin".

"Urnietan eta Andoainen elikagai banaketari ekin diogu"

BEATRIZ SANCHEZ CARITAS

Gizarte langilea Buruntzaldeko Caritaseko kide da

Xabier Lasa ANDOAIN


Pobrezia gizartean areagotzea da osasun krisiak berarekin ekarri duen eragin kaltegarrietako bat. Errealitatea hori jada gertutik bizitzen ari direla aitortu du Beatriz Sanchez gizarte langileak, Buruntzaldea eta Aiztondoko eskualdeetako Caritas elkarteak ordezkariak.

Caritasen jarduna gizarteko behar handiena dutenengan bideratzen da batik bat. Osasun larrialdia bizi dugunez, nola ari zarete lanean?

Salbuespeneko egoerara egokitu behar izan dugu, nahitaez. Caritasen eginkizuna bertatik bertarakoa izan ohi da, pertsonen zuzeneko tratuan oinarritzen dena, baina egoerak baldintzatuta, egiteko moduak aldatu behar izan ditugu, betiko filosofoari eutsi arren. Beharra duten eta lehendik ere ezagutzen ditugun pertsonen ondoan egoten saiatzen ari gara, eta horrekin batera, egoera berriak eraginda telefonoz nahiz teknologia berrien bitartez iristen ari zaizkigun eskaintza berriei erantzuten saiatzen ari gara.

Buruntzaldean zertan zabiltzaten zehaztuko zenuke?

Telefono bidezko harremana indartu dugu, esan bezala. Horiekin harremanetan jarrita galdetzen diegu ea nola daramaten konfinamendua, ea zeintzuk diren beren premiak... Aldi berean, Caritasera hurbiltzeko eskaintza berriak jasotzen ari gara. Telefonoa honakoa da: 943 116 150.



Beatriz Sanchez. CARITAS

Zuen ohiko ekimenak bertan beharra utzi behar izan duzue.

Bai, baina ahalik eta azkarren gure ohiko jardunera itzultzen ahalegintzen ari gara. Azken egunetan pausoa berriak ematen ari gara, eta adibidez, Urnietan eta Andoainen elikagaien banaketari ekin diogu Gurutze Gorriko boluntarioekin batera.

Langabeziarena igo egin da, autonomo ugari etxean... Eskaera igo egin zaizue azken asteetan?

Bai, pertsona eta familia ugari ari zaigu hurbiltzen; etxeko langile eta neskameak, lan ordu gutxi batzuekin aritzen ziren langileak eta orain ezer gabe geratu direnak...

Etorikizunean ere boluntarioen beharrea izango zarete.

Boluntarioen ekarpena da Caritasen zutabeetako. Harro adieraz dezakegu eskualdean konpromiso handiko jendea dugula.

Telefono bidezko deia adinekoei

Andoaingo Udaletik Andoaingo 65 urtetik gorako pertsonen deitu zaiela adierazi zuten. Denera, 2.279 dei izan dira. Eta dei horietatik hainbat laguntza bideratu dira. Udal iturrien arabera, "dei horien ondorioz, Gurutze Gorriaren eta boluntarioen taldearen laguntzarekin, 29 familia andoaindar artatu dira eta hainbat zerbitzu eman zaizkie: 29 elikadurakoak, 19 farmaziakoak, 1 bankuarekin egindako kudeaketa eta 1 zaborra jaiste. Beste 9 familia andoaindarrek Gurutze Gorriaren telefonora deitu dute zuzenean eta haien beharrei ere erantzuna eman zaie". Udalak eskerrak eman dizkie Gurutze Gorriari, boluntarioen taldeari eta Caritasi "bizitzen ari garen egun zail hauetan egiten ari diren lanagatik eta udalarekin izaten ari diren lankidetzagatik".

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

HURRIA SAHARA ANDOAIN

Pandemia Saharako kanpalekuetan

Hurria Sahara andoaindar elkarteak Saharako herrian Covid19 pandemiak dituen ondorien berri eman nahi du.

Marokon 1000 kasu inguru zenbatu dira, eta azken datuen arabera Saharako lurralde okupatueta zenbait koronabirus kasu atzeman dira; kezka dago preso saharaiuen egoerarekin ere.

Argelian milaka coronavirus kasu atzeman dira, eta estatu horretan dauden errefuxiatu kanpamenduetan Fronte Polisarioak Haimetan geratzeko agindua eman du: eskolak itxi dituzte klaseak emateko beste bideak antolatuta eta kanpamenduen arteko desplazamentuak mugatu. Testak egiten ari dira apurka apurka eta oraingoz ez da kasurik atzeman.

Europar pandemia zabaltzean, Saharatik elkartasun mezuak bidali zituzten Euskal Herrira, tartean mezu batzuk euskaraz igorri.

Pandemia egoera dela eta, Oporrak Bakean programa bertan behera geratu da. Udaran Euskal Herrira 350 haur saharar inguru etorri ohi dira, kanpalekuetako tenperatura altuak sahiesteko, hobe elikatze eta mediku arreta osatuagoa jasotzeko. Aurten milaka haurrek ezin

izango dute Italia eta Espainiar estatuko familietara joan udara pasatzera.

Kezka dugu ere azken urteetan Siria eta beste herrialdeetako gatazken ondorioengatik Saharako errefuxiatu kanpamenduetarako murrizten joan den nazioarteko laguntza hemendik aurrera pandemia egoeragatik murriztagoa izango ote den.

Sahararen aldeko euskal elkarteak lanean ari dira elkartasuna errefuxiatu kanpalekuetara bideratzeko: adibidez, Oporrak Bakean proiektuari esker mediku azterketak egiten zitzaizkien 8-12 urte bitarteko haurrei, eta arreta hau nola berrantolatu aztertzen ari gara. Bestalde, haur bakoitzak Euskal Herriko familien eskutik arropa, hezkuntza materiala eta janaria eramaten zuen kanpalekuetara, eta nahiz eta haur saharaiak aurten ez etorri, maleta hori Saharara bidaltzeko modu egokiena zein den aztertu beharko da.

Horretarako, Hurria Saharak nabarmendu nahi du orain arte bezala andoaindarren eta udalaren lankidetzaren beharrezkoa izango dela, eta epe laburrean informazio gehiago eskainiko du laguntza bideratzeko aukerei buruz.

POSTONTZIA

JOXERRAMON BERRONDO ANDOAIN

Gertutasuna eta prestutasuna

Bi hitz horiekin ederki definitzen den pertsona datorkit burura, herri honek aspaldian emandako figura emankorrenetakoa. Andoaingo herria eta bere izen ona Gipuzkoa mailan hedatzen dituen, eta horrekin, andoaindar guztiena. Ez da nabarmenduko oldarkorra delako, baizik eta izateagatik errespetu handiko pertsona, nortasun ikaragarrikoa, inoiz ez harroputza... Benetan eredugarria da bere umiltasuna.

Etxe barruan egon behar honek are eta langileago bihurtu du, barruko sormenari ateak guztiz zabalduz. Orduak igarotzen ditu pianoaren aurrean konposatu eta konposatu, sortutako obra guztiak besteen eskuetan jarri, eta beti Andoaingo herriari oparitut, herriko ondare kulturala aberastuz.

Proiektuz betetako pertsona, aurrera egin eta lortzen dituen horietakoa, eta inguruan bazabiltza, konturatu gabe, bere zurrumbilo artistikoan murgiltzen zaituena.

Bere azken proiektua kontzejupeko eremuan kontzertua eskaintzen da; udaletxearen azpialdean hain zuzen, bere gaztetako oroimenei jarraituz

Andoaingo musika bandak eskaintzen zituen kontzertuen antzera. Horretarako, eta kontzertu berezi horretan estreinatze, pasodoble eder bat sortu du, garai bateko kontzertuak irudikatuz.

“Kontzejupe” jarri dio titulua pasodobleari.

Hil honetako azken iganderako zegoen aurreikusia kontzertua. Noiz eskainiko den? Egoerak aginduko digu, baina kontzertu ederra izango dela aurreratu dezaket, andoaindar guztion espazio bateratuan emango dena. Zerbait ikasi behar badugu egoera honetatik, hainbat gauza erlatibizatzea eta garrantzia duenari indarra ematea, eta, desberdinen arteko elkartasuna da.

Betiko moduan, obra berri hori andoaindarren ondare kulturalaren esku geratuko da. Gutxi ezagutzen ditut nik horrelako eskuzabaltasunaz jokatzen duten pertsonak.

Artikulu honekin nire eskerrik beroenak eskaini nahi diot, izan ere, lagun, irakasle, makulu eta aholkulari aparta delako Joxe Mari Oiarzabal. Gure ondorengoek, agian, bere izena gure herriko kale bateko kantoian ikusiko dute idatzita... Merezia du! Besarkada bat Joxemari!”



Makaldegian ez da azokarik egingo. AIURRI

Larunbatero azoka izango da, baina Goikoplazan

Pandemia egoeran eten egin zuten azoka, eta berriro martxan jarriko du Udalak

Erredakzioa ANDOAIN

Osasun Sailak zehaztutako segurtasun eta babes-neurriak hartuko dira: ilara egitean gutxieneko distantziak bermatzeko, bai eta elikagaia manipulatzekeo neurriak ere.

Sei metroko segurtasun-distantziak ezarriko dira postu ezberdinen artean, eta bi metroko distantziak bezereekiko. Postu bakoitzeko saltzaile baten gehieneko kopurua ezarriko da.

Makaldegitik Goikoplazara

Azokaren kokapena aldatuko da, Makaldegitik Goikoplazara pasaz. Hasiera batean astean behin egingo dute, larunbatetara. Azokarako ezarritako ordutegia lau ordukoa izango da, goizeko 09:00etatik 13:00etara.



Adrian Garcia eta Andrea Suarezek osatutako familia.



Antton Landazurik eta Jaci k osatutako familia.



Iazko Santakrutzak. AIURRI

Astelehenean hasita, haurrak piskanaka kalera

Helduek lagunduta, hamalau urte bitarteko haur eta gaztetxoei kalera irteteko aukera eskainiko zaie. Oso baldintza mugatuak dirudite. Etorkizun hurbilean murrizpen zorrotzak altxa daitezkeela dirudi

Andoni Urbistondo URNIETA

Astelehenean hasita, haurrei konfinamendu egoeratik irteteko aukera eskainiko zaie. Berandu baino lehen xehetasun gehiago eskaini beharko dituzte, ordutegiei eta iraupenari dagokionez.

GARCIA-SUAREZ FAMILIA

Adrian Garcia, Andrea Suarez, Elia eta Oihan familiarekin solasean, zaintzaz eta lanaz.

Zer moduz daramazue konfinamendua?

Gurasook ahal dugun moduan. Gure kasuan bi haur txiki ditugu; 3 urte zaharrenak eta 10 hilabete besteak. Biok etxetik lan egiten dugu, eta umeen zain-

tzarekin uztartzea oso neketsua eta zaila da. Nola edo hala moldatzen saiatzen gara; goizean goiz lanean hasi umeak esnatu aurretik lana aurreratzeko, txandaka lan egin... Pazientziarekin hartu behar, egoerak luze joko duela baitirudi.

Haurrak ongi daude, artista hutsak dira egoera zailenetara moldatzen. Gurasoei daude uneoro, eta horrekin nahikoa dute. Falta zaie ariketa fisikoa, haizea hartzea kolean, eta, batez ere, beste umeekin jolastea. Ea apirilaren 27tik aurrera hobetzen den haien egoera.

Haurrei kalera irteteko baimena emango zaie hurrengo astean. Lehenago iritsi behar zuen?

Umeen oinarritzko eskubidea da kalera ateratzea. Beharrezkoa dute itxialdiak luzera albo kalterik egin ez diezaie. Baimena emango dute apirilaren 27tik aurrera. Helduok moldatu gaitzke edonola, baina umeengan gehiago pentsatu beharko genuke, babesgabeago daudelako; saiatu beharko ginateke egoera honek ahalik eta eragin gutxien sortzea haien etorkizunean.

LANDAZURI FAMILIA

Jaci, Antton, Giulene eta Aroa familiarekin solasean

Zer moduz zaudete?

Umeak gurasoek baino hobeto daramate. Irteten gara, erosketak egitera, zakarra botatzera,

burua arindu apur bat... Oso mentalizatuta daude. Ez zaie astuna egiten ari, adin antzekoa dute bi neskek, eta ondo moldatzen dira euren artean elkarrekin, jolasean batera aritzen dira. Noizbait nabaritu izan diet parkera jolastera joateko gogoia dutela esanez, baina gutxitan. Ez diet estresik, edota gustura ez daudenaren sentsazioarik sumatzen. Anttonek eta biok ere lan ordutegi ezberdina dugu, eta laurok elkarrekin egoteko aukera daukagu, eta horrek ilusioa sortzen die. Euren badakite kalera irteten badira gaixotzeko arriskua daukatela eta ondo eramaten ari dira. Eskertzekoa da hori guretzat, eurek lasai badaude, gurasoak lasaigo gaudelako.

Haurrentzat egoera aldatuko da, astelehenean hasita.

Beharrezkoa da, haurrek eguzkia har dezaten, aire pixka bat hartu... Dena izan da hain surrealista, ezjakintasuna erabatekoa, aurkaria hain ezezaguna... Une egokian dator erabakia. Baina garbi edukita irteera tartetxo txiki bat dela, etxe buelta bat eman eta kito. Aprobetxatzen saiatuko gara.

Santakrutzak bertan behera gelditu dira

Santakrutzak bizitzeko irudimena erabiliko dutela iradoki du Jai Batzordeak

Erredakzioa ANDOAIN

Apirilaren 14an, ohar banatan, jaiak bertan behera geratzen zirela adierazi zuten Jai Batzordeak eta Udalak. Udalarenak, nagusiki, zera zioen: "Bertan behera geratzen dira 2020ko maiatzerako antolatuta ziren Andoaingo festa eta ospakizun publiko guztiak".

Jai Batzordeak bideo bidez egin zuen jakinarazpena: "Kai-xo andoaindarrok! Santa Krutz festetako Jai Batzordea gara. Aurtengo festak ez dira beti bezala ospatuko. Hala ere, aurtengo festak beste modu batera ospatzea proposatuko dizuegu. Ez dugu festarik gabe geratu nahi eta. Izango duzue gure berri. Gora Santakrutzak!".

Buruntzako jaiak

Udalak zabaldu zuen oharra ezustea eragin zuen herritar askorengatik, Buruntzako jaiak ere bertan behera geratzen zirela aipatzen zelako. Jaiak maiatzera aurreratu nahi zituzten, eta erabakia hartzeko Udalarekin harremanetan ziren. Martxoaren erdialdean piztutako alarma egoerak, ordea, asmo horiek zapuztu egin ditu eta, aurtengoan behintzat, abuztuaren antolatze ideari eutsiko diote. 2021ean jaiak aurreratzeko asmoari berrekingo diote.

Lapikoa joz, haurren alde

Espainiako Gobernuak bozeramaile Monterok astearte eguerdian egin zuen iragarpenak hautsak harrotu zituen. Haurren mugimendua erosketak egitera edo farmaziara joateko mugatuko zuela adierazi zuen. Horren aurrean, lapikoa jotzeko deia egin zen. Iluntzerako, Espainiako Gobernuak atzera botako zuela iragarri zuen.



AIURRI

"Etxealdetik Euskaraldira"

Hizkuntza ohituren inguruan hausnartu eta ekiteko ekimena jarri da martxan, apirilaren 20an hasi eta maiatzaren 3ra bitarte gauzatuko dena. Maiatzaren 3a ekitaldi bateratuarekin amaituko da. "Ekitaldi horren inguruko azalpenak apirilaren 30eko proposamenean azalduko ditugu. Komunitateari ikusgarritasuna eta batasuna ematea izango du helburu".



AIURRI



laiz Euskaldunako talde nagusia mailaz igotzea lortu zuen egunean, Ubitarten. AIURRI

Ubitarte zelaiak hamar urte

Ubitarte zelaiko harmaila eta instalakuntzak 2010eko apirilaren 17an inauguratu ziren, eta hamar urte igaro dira ordutik, hortaz. Andoaingo kirolari eta kirolariei ekarri dien onurei eta etorkizunari buruzko balantzea egiteko tenorea iritsi dela esan daiteke

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo kirol instalakuntzen arloan pauso garrantzitsu bat eman zela adierazi zuten inaugurazio ekitaldira hurbildu ziren politik, kirol eragile, kirolari eta kirol zaleek 2010eko apirilaren 17ko egun hartan. PSE-EE, EAJ, EB eta Hamaikabat alderdietako udal ordezkariak (ezker abertzalea legez kanporatua zegoen) eta kirol taldeetako ordezkariak bildu ziren zinta moztearen erritualera. Urkiko taldeko dantzariak agurra dantzatu ostean, Joxean Huizi Euskaldunako lehendakariak hitza hartu eta zera adierazi zuen: “Gure aspalidiko ametsa bete da. Partidak ikustera gatozenontzat erakargarria izango da, eta baita etorriko direnentzat ere. Jakin badakigu eraikina altxatzea ez dela erraza izan, bizi dugun egoera ekonomiko zailean ahalegin

ekonomiko handia egin delako”. Estanis Amutxastegi Alkateak ere poza agertu zuen: “(...) kirol azpiegitura berria zabaldu eta zuei aurkeztera etorri gara. Andoaingo jokalarientzat gisa honetako azpiegitura bat eskaintzeko gogoia izan dugu betidanik”. Aldi berean, hurrengo denboraldirako Foru Aldundiari belar artifizialeko zelaia berritzeko laguntza eskatu zion “gure jokalariek zelaian erre ez daitezen”.

Ondoren, bildutako guztiek eraikuntza zuzendu zuen Anjel de la Hoz arkitektoarekin batera bi solairuetan barrena bisita gidatua egin zuten. Goiko solairua (225 ikusleentzat harmaila, bileretako gela, komunak txarteldegia eta taberna) ikuslegoari zuzenduta dago, eta behekoa (jokalaria nahiz epaileentzat sei aldagela, bildegia, masajerako gela, mantenimendu gela eta

komunak) kirolarien beharrei egokituta.

Ordura arte futbol zelaia eta atletismoko gunea Allurralde bezala ezagutu zen, baina egun hartatik aurrera Ubitarte izena jarri zitzaion.

Ixiar Olano Allurralde kiroldegiko teknikariak gogoratu duen bezala, Allurralde kiroldegia jarraipen gisa egin ziren futbol zelaia eta atletismoko pista 1998an. “Allurralde 1992an ireki izanak iraultza ekarri zuen andoaindarren jardura fisikoaren praktikan. Alde batetik, ordura arte praktika fisikorik egiten ez zuten herritar gehienek jardura desberdinak ezagutu eta praktikatzea ahalbidetu zuen, igeri egitetik hasi eta une hartan sortzen ziren jardura gidatuen aniztasunearaino. Eta, nola ez, jada funtzionatzen ari ziren kirol taldeentzat

beharrezkoa zen kalitatezko bultzada izan zen, eta kirol berriak praktikatzea ahalbidetu zuten klub berrien sorrera eragin zuen. 1998an, Allurralde ondoko zelaiaren eraikuntza, berriz, belar artifizialarekin, aldaketa handia izan zen”.

Oraindik harmaila estalirik ez eduki arren, zelaia eraikitzea oso urrats garrantzitsua izan zen Olanorentzat, “batez ere taldeak gehitzea eta hobeto entrenatu ahal izatea ahalbidetu baitzuen, belar artifizialak ez baitu belar naturalak adina zainketa behar eta erabilera askoz ere gehiago jasaten baitu. Euskalduna belar naturalean eta instalazio zaharrituetan entrenatzetik askoz gehiago entrenatu ahal izatera pasa zen, belarraren egoeraz etengabe arduratu beharrik ez izatera, eta bere kategoriarako egokiak diren aldagelak eta bildegia edukitzera”.

Ramon Iriartek gertutik ezaugu zuten Etxeberrietako zelai zaharretik Allurraldeko zelai berrirako jauzia, orduan Euskaldunako zuzendaritza batzordeko kide baitzen, eta izaten jarraitzen baitu geroztik ere. “Kirolariarentzat aldaketa izugarria eragin zuen. Lokatz-hondar zelai batetik, belarra artifiziala zeukan zelai batera igaro ginen. Etxeberrietan “indarrak” garrantzi handia zeukan, oso gutxitan baitzegoen jokalarien “teknika” edo trebezia erakusteko aukera. Eta bestetik, Etxeberrietako aldagela xixtrinetik, kiroldegiko aldagela be-

rrietara pasa ginen, dutxa eta leku gehiagorekin”.

Beste hobekuntza nabarmena, argi artifizialarena izan zen Iriarterentzat. “Etxeberrietan, zortzi foko txiki zauden, eta *ipurtargi* horrekin entrenatzen genuen. Ezinezkoa zen partida bat jokatzea, ilundu orduko! Azken batean, belar eta argi artifizialei esker, handitu egin ziren asteburuetako ordu tarteak partidak-eta jokatzeke, eta Euskalduna kluba pixkanaka hazten joan zen. Alderaketak alderaketa, esango nuke antzeko zerbait gertatu zitzaiola Realari 1992an, Atotxatik Anoetarako jauzia eman zue-nean”.

Nolanahi ere, hobekuntza guzti hori ikusleek ezin izan zutela gozatu gogoratu nahi izan du Iriartek: “Zergatik? Bada, Etxeberrieta zaharrean, gutxienez, estalitako bi eremu zeudelako eguraldi txarretik babestu ahal izateko. Allurraldeko zelaira igarotzean, ordea, babesik gabeko harmaila topatu genituen; haizeak eta euriak errukirik gabe jotzen zuten han! Harmailen orientazioagatik, esan dezakegu Etxeberrieta babestuagoa zegoela. Urte gogor haietan, klubeko benetako heroiak taldea babestu zuten zaleak izan ziren, taldea partidaz partida animatuz! Zeharkaldi nekagarri horrek 12 urte iraun zuen, 2010era arte”.

2010ean, Ubitarte

2010an Ubitarte izena ipinita instalazioak eraiki zirenean kalitatezko jauzia gertatu zela dio Olanok: “kalitatezkoa, bai klubarentzat, bai bazkideentzat eta, oro har, publikoarentzat. Harmaila estaliak eta gainerako instalazio zentralizatuek, aldagelek, biltegiek, bulegoek eta tabernak klubeko zuzendaritzaren lana erraztu zuten”.


Iriartek onartzen duen bezala, Euskalduna futbol kluba izan da onuradun nagusia zelaia eraiki zenetik. “Egin kontu, Etxeberrietatik bost talde federatuekin irten ginen, eta 2010era 10-11 talderekin iritsi ginen. Eta urte horretatik aurrera hazten segi genuen, Allurraldeko instalakuntzak arinduz batera nolabaitko autonomia lortu baikenuen. Federatutako talde gehiago inskribatzeko aukera eman zigun, eta gainera, futbol eskola martxa jarri genuen. Zalearen ikuspuntutik ere, hobekuntza ikusgarria izan zen. 12 urteko sufrimendua-



Fernando Narciso kirol zinegotzia, Estanis Amutxastegi alkatea eta Joxean Huizi Euskaldunako lehendakaria, 2010eko apirilaren 17an inaugurazio ekitaldian. AIURRI

ren ondoren, partidez gozatzeko espazio estali bat, komunak eta kantina bat edukitzeak, gure espektatiba guztiak gainditu zuten”.

Euskalduna taldearen egungo erradiografia egin digu Iriartek: “400 kirolari inguru mugitzen ditu Euskaldunak, federatutako 12 talde eta beste 12 talde futbol eskolan (150-170 neska-mutil). Zelaia honako ordutegiarekin erabiltzen dugu entrenatzeko: 17:00etatik 22:00etara, astelehen, astearte eta ostegunetan; eta 15:30etik 22:00etara, asteazken eta ostiraletan. Gero, larunbat eta igandeetan, jokatzen diren partiden arabera, 09:00etatik 22:00etara, larunbatetan, eta 09:00etatik 14:00etara, igandeetan. Etorkizunari begira ez daukagu erraza gehiago haztea, futbol zelai bakarra edukita. Andoain-go pare dauden zenbait herriek bi zelai dauzkate (Tolosa, Ordi-



Ixiar Olano Udal langilea.

zia, Azpeitia, Azkoitia, Errenteria, Bergara, Hondarribia...) eta nahiko argi dago hazten segitzeko gaitasun handiagoa daukatela”.

Erronkak, etorkizunerako

Ubitarteko instalakuntzak egokiak direla aitortu arren, badaukate zertan hobetua Iriarteren iritziz.



Ramon Iriarte Euskaldunako kidea.

“Kirolariaren ikuspuntutik, instalazio oso onak direla esan dezakegu. Baina dagoena hobetzeko ahalegin horretan, etorkizunean zenbait alderdi jorratu beharko lirakeela iruditzen zaigu. Esate batera, zelaian instalatutako fokuen potentzia eta kokapena (jokalekutik urrun) direla eta zelaian gune ilunak geratzen dira, eta, ureztatzesistemarekin arazoak maiz izaten ditugu. Zaleen ikuspuntutik, oro har, nahiko pozik daudela esan daiteke, batik bat nondik gatozen ikusita. Baina bi motatako kexak izaten ditugu; alde batetik, sortzen diren aire korronteek partidetera bertaratutakoak izoztuta uzten

dituztela, eta bestetik, estalkiaren diseinuaren eraginez, euriarekin batera haize pixka bat egiten badu, harmailak erabilezin geratzen direla, bertan geratuz gero busti egiten delako”.

Euskaldunak Udalari eginda-ko beste zenbait proposamen zehaztu ditu Iriartek: “Futbol zelaiko bi ateen atzean dauden bi zirkulu erdi horiek belar artifizialarekin estaltzea proposatu izan dugu, uste baitugu ego-ki etorriko litzaigukeela astean zehar entrenatzeko eta partidu egunetan beroketa ariketak egiteko ez ezik baita ere futbol eskolako entrenamendu eta partidak jokatzeke. Erantzun zai- gunez, batean behintzat ezin omen da, azpian ureztatzesistema dagoelako. Bestalde, orain dugun beharrik handiena goiko partean biltegi bat edukitzea da, kantinaren materiala eta beste zenbait azpiegitura gorde ahal izateko”.

Ixiar Olano Allurraldeko kirol teknikariak aitortu du Iriartek aipatu dituen hobekuntza horiei heltzeko asmoa daukala Udalak legealdi honetan. “Ubitarten dagoeneko lantzen ari garen erron- ken artean, harmaila hobetzea eta Euskalduna klubaren behar zehatz batzuei erantzutea daude”. Allurralderi dagokionez ere, Olanok legealdi honetan esku artean dituzten bi erronka gar- rantzitsuenak gehitu ditu: “ki- rol anitzeko bigarren pista bat eraikitzea eta espazioak handitzea dira horiek, inbertsioen zein kirol elkarteen beharrak asetze- ren ikuspegitik. Nolanahi ere, une hauetan bizitzen ari garen salbuespeneko egoerak pentsa- razten dit jarduera fisikoa egi- teko eszenatoki berrietan pen- tsatu beharko dugula, eta erron- ka berriei aurre egin beharko diegula”. Gaur egun, 6.521 abo- natu eta erabiltzaile dituzte An- doaingo udal kirol-instalazioek, hots, Allurralde, Arrate eta Ubi- tartek (2.909 emakume eta 3.612 gizon). Horietatik 269 federazio fitxa daukate (58 emakume, 211 gizon). Datu horiei, Euskalduna- ko futbol eskolako jokalar txikiak gehitu behar zaizkie.

Kirol instalakuntzen mugarrak

Kirol instalakuntzei dagokionez, hainbat mugarri aipa daitezke:

- 1977/06/24
Arrate pilotalekua ireki zuten.
- 1992/06/26
Allurralde kiroldegia ireki zen. Igerilekua, kirol pista, aerobikerako gela eta bi squahs pista.
- 1993
Kiroldegian sauna eta hidromasaje zerbitzuak ireki zituzten.
- 1993
Allurralde Kirol Patronatua sortu zen. Herriko kirol eskaintza eta instalakuntzak kudeatzeko helburuz.
- 1998
Kiroldegian gimnasioa eta aldagela berriak eta kanpoaldean atletismorako eta futbolerako kirol-gunea eta estali gabeko harmailak ireki zituzten.
- 2010/04/17
Futbol zelaiaren eta atletismo gunearen ondoan eraikin berriak (harmaila estaliak eta instalakuntzak) ireki zituzten. Ubitarte izena jarri zioten gune osoari. Urte berean, kiroldegian squash gelatako batean rokodromoa jarri zen eta bestean spinning gela.

Ubitarte toponimioa

‘Andoaingo Toponimia’ liburuan (egilea: Amaia Usabiaga; Euskaltzaindia, 1993) zehazten denez, “andoaindar askok gogoratuko dutenez, garai batean Makaldegia- ren parean uhartetxo bat egiten zuen, Isla izenez ezagutzen zena, alegia. Isla hori dokumentazioan Ubitarte(a) izenarekin agertzen zaiguna, etimologikoki adiera bera duen hitza: u(r)-bi-tarte...”. Leku horretan Azpikoerrotan errota kokatzen zen iraganean.



andoainDARRA
euskaraz

**"UBITARTE
KALITATEZKO JAUIA
IZAN ZEN KLUBA
BAZKIDE ETA
PUBLIKOARENTZAT"**

**"ETXEBERRIETAN 5
TALDE EDUKITZETIK,
UBITARTEN, 10-11
TALDE EDUKITZERA
IRITSI GINEN"**



Panticosako proban ateratako argazkian ikus daitekeenez, aurkariak atzean zituen. Podiuma zapaldu zuen egun hartan. MURUA

“Eskiak asko eman dit”

AIMAR MURUA ESKIATZAILEA

ESKIA Andoaindarra Euskal Seleksioko taldekide bilakatu zen Panticosako proban podiuma egin ostean. Datorren urtean maila bat gorago lehiatu nahi du Espainiar Seleksioarekin

Mikel Arberas ANDOAIN

Nondik datorkizu eskiarekiko zaletasuna?

Umetatik eskiatu izan dut. Sei urterekin hasi nintzen eskiatzen, aita ere eskiatzailea baita. Hasiera batean, Luz Ardiden eski estaziora joaten ginen eta alpin egiten nuen soilik.

Zaletasun hau batez ere nire aitarengandik dator. Gainera, nire aitona eta amona ere eskiatzen zuten. Hasiera batean,

aitak alpino soilik egiten zuen, baina hainbat pertsona elkartu eta gauza ezberdinak probatzen hasi zen.

Eskian txapelketetan parte hartzen duten gipuzkoar gehiago badaude?

Euskal Seleksioan ez gaude gipuzkoar asko, zehazki, hiru gara; bi donostiar eta ni. Bizkaitarrak, esaterako, gehiago dira, baina nafarrak dira gehienak, nahiz eta Euskal Seleksioaren zati ez izan. Esanak esan, gipuzkoa-

rrontzat eskiatzea ez da oso ohikoa hemen elur asko egiten ez duelako. Nire kasuan, aitak betidanik eskiatu izan duenez, askotan eramaten ninduen elurra zegoen lekutara.

Eskiko zein modalitate praktikatzen duzu?

Mendi-zeharkako eskia praktikatzen dut. Eskiekin mendiak igotzean oinarritzen da. Atzera irrist egiteko "foka" izeneko larruazal modukoak dituzte es-

kiek, honela, aurrera egitea ahalbidetzen du, baina ez atzera.

Zein txapelketa gehiago daude?
Hiru modalitate ezberdintzen dira eskian; esprinta, bakarkakoa eta krono-eskalada.

Esprinta ahalik eta azkarren distantzia bat egitean oinarritzen da. Hau da, eskiakin esprintatzen duzu eta ondoren eskiak motxilan gorde eta korrika ere egiten duzu, guztia ahalik eta denbora laburrenean. Ondoren, puntu berean bukatzen duzu, beraz, igotzen duzuna ere jaitsi egin behar da.

Beste modalitatea bakarkakoa da. Zu mendiaren alde batean has zaitezke eta beste edozein puntutan amaitu. Bakarkakoa igoera eta jaitsieretan oinarritzen da.

Azkenik, krono-eskalada dago. Beheko leku batean hasten da eskiatzailea eta tontorrean edo goran amaitzen du. Modalitate oinarritzkoena dela esango nuke. **Neguan asteburuak kanpoan igarotzen dituzu entrenamenduak direla medio?**

Aurten txapelketa asko atzeratu egin dira koronabirusa dela eta. Niretzako aurten ez ditut helburuan eduki txapelketei dagokienez; baina txapelketak ditudanean asteburuetan irteerak egiten saiatzen naiz, astean zehar eskolara joan behar baitut. Esaterako, Jaka ez dago urruti, bi ordu eta erdian bertan zaude.

Jakan batez ere Candanchu eski estazioan eskiatzen dugu. Gainera, nire aita talde batean dago, beraz, normalean hara joaten gara eta topaketa modukoak egiten ditugu.

Nolakoak dira egiten dituzun entrenamenduak?

Oraingoz entrenamenduak aitak jartzen dizkit, aurten hasi naitzelako seriozitatez mendi-zeharkako eskian. Askotan joaten garenez eskiatzera, arreba eta ama euren aldetik joaten dira; nire aita eta ni, berriz, entrenatzera joaten gara eta geure aldetik egiten ditugu entrenamenduak.

Udan nola entrenatzen duzu praktika ez galtzeko?

Ni aurten hasi naiz eta udan ez dut entrenatu, baina entzun dudanez normalean hiru entrenamendu mota egiten dira; roller, "caco" eta kilometro bertikalak. Roller eski moduko tresna bat da, baina gupilak ditu irrist egiteko. Caco oinez mendiko makilekin ibiltzean oinarritzen da. Kilometro bertikalak eta



Aimar Murua. MURUA

Elkarrizketa irratian

Apirilaren 14an Euskadi Irratiko Baipasa saioan elkarrizketa eskaini zuen, Mikel Arberas Aiurriko kazetariaren galderari erantzunez.


mendiko lasterketak, berriz, fisikoki ondo mantentzeko oso baliogarriak dira.

Nolatan debutatu zenuen Euskal Seleksioarekin?

Amerikako Estatu Batuetatik bueltatu nintzean futboleko zentratzea erabaki nuen, baina lesio asko edukitzen nituen eta ez nengoen gustura; orduan, aitak asteburu bat eurekin mendira eskiatzea joateko esan zidan. Joan nintzen eta izugarri gustatu zitzaidan, paisaia ederrez gozatzeko aukera zegoelako, kolpe gutxiko kirola delako eta lesio gehiago eduki ez nituelako batik bat. Horrek maitemindu ninduen.

Beranduago, lehen mendi-zeharkako lasterketan parte hartu nuen, Candanchun. Hasiera izugarria izan zen, bihotza bor-borka eta urduritasuna nabaria zen. Lasterketan gutxina-ka erritmoa hartzen joan nintzen eta bigarren bukatu nuen lasterketan. Seleksioko kideek nire lasterketa ikusi zuten eta taldeko parte izan nahi nuen galdetu zidaten. Sarbide proba egin nuen Panticosan, oso ondo egin nuen, eta bigarren geratu nintzen berriro ere; beraz, Euskal Seleksioko taldekide bilakatu nintzen. Izugarria izan da niretzat.


ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Eneko Fernandez
Koronabirusak ez dizkigu festa eta salako tenis partida izorratuko, Eneko! Muxu handi handi bat. Etxekoak.




ANDOAIN
Zorionak Markel!
Martxoaren 28an 8 urte bete zenituen. Gure txapelduna zara! Muxu handia etxekoan partetik.



ANDOAIN
Andoni
Ahalik eta ondoen pasatzen saiatuko gara, nahiz eta etxetik ezin irten. Asier, aitaxo eta amatxo!!!



ANDOAIN
Anje
2 urte bete zituen martxoaren 25ean. Etxean ederki ospatu genuen, eta hala jarraitzen dugu. Muxuak.



ANDOAIN
Jon eta Xuhar Aranburu!
Apirilaren 14 eta 16an, Jon eta Xuhar lehengusuek 8na urte beteko dituzte. Nahiz eta aurten etxean ospatzea tokatzen zaigun, ziur ederki pasako dugula!! Muxu handi bana.



ADUNA / ANDOAIN
Axel eta Amane!
Apirilaren 12an Axel eta Amane bikiek 7 urte egingo dituzte. Zorionak eta muxu asko etxekoan partetik.




ANDOAIN
Peru
Zorionak Peru Perutxi! Ondo pasa pottolo seigarren urtebetetzea. Muxuak etxekoan partez. Zorionak!!!



ANDOAIN
Nairi Ocon
Zorionak Nairiara! 5 urte! #Etxean ospatuko dugu ta kriston festa egingo degu! Maite zaitugu! Muxu bat.



ANDOAIN
Jon Iraola Treku
Zorionak Jon! Besarkadairtual bat eta gu ere etxean geratzen gara. Etxekoak.



ANDOAIN
Oier Muñoz
Oierrek 8 urte beteko ditu apirilaren 19an. Jarraitu orain arte bezain zoriontsu! Etxekoak.



ANDOAIN
Irai Jauregi
5 urte potolo!. Aurtengoa etxean, baina gehien maite zaituztenekin. Muxu pila bat!!!



URNIETA
Iker
7 urte! Egun polita pasa zure egunean!! Asko maite zaitugu!! Zure familia. Mila muxuuu!!



URNIETA
Uxue
Zorionak Uxue! Dagoeneko 3 urte dituzu! Egun polita pasa guraso ta neba Urkorekin. Muxuak!!



ANDOAIN
Malen Ariztimuño
Balentiaga
Apirilaren 25ean 13 urte. Jarraitu orainarte bezain irrifartsu eta zoriontsu. Etxekoak.



ANDOAIN
Maddi
Apirilaren 21ean urteak beteko ditu izeba Maddik. Zorionak etxeko guztien partez eta muxu virtual bat.



ANDOAIN
Irati Ezeiza
Usabiaga
Gure neska politak 23 urte beteko ditu apirilaren 26an. Aitona Esteban eta amona Miren.



ASTEASU
Aimar
Apirilaren 28an 5 urte beteko dituzu. Laster ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu handi bat!



ANDOAIN
Haritz
Apirilak 20ean 15 urte bete zenituen. Etxean, baina ederki ospatu genuen! Muxu potoloa. Etxekoak.

URTEBETETZEA KONFINAMENDU GARAIAIN

GARBINE UGALDE ANDOAIN (2020-4-16)



Egunak joan eta egunak etorri, konturatzeke hilabete daramagu etxean. Konfinamendua, koronabirusa, pandemia, berrogeialdia... hitz berri dexente barneratu ditugu gure hiztegian. Inork pentsatu al zuen egoera honetara iritsiko ginenik? Hain urrun dagoen Txinan gertatzen ari zen zerbait zen hasiera batean eta to! zein azkar bidaiatu duen pasaporterik gabe gudanaino! Egunerokoa erabat aldatu zaigu guztioi. Haurrak ikastolarik gabe baina etxeko

lanekin, helduok ahal dugun neurrian telelana eginez, kazerolada, zortzietako txalo zaparradak... Gure etxean, behintzat, nahiko kaosa izan da hasierako asteetan batipat. Ordenagailu bakarria etxean (pizten bakarrik 10 minutu behar dituen) eta hiru pertsonak bertan lan egin beharra. Eskerrak txikienak apenas behar izan duen ordenagailuaren premia! Antolatzea omen da gakoa, baina batzuetan ez da erraza. Bakoitzak bere lan orduak sartu nahi, justifikatu egin behar baitira, eta bitartean, haurrak, ikastolako lanetan sortzen zaien edozein zalantzaren aurrean “aaaaa, aita... zer egin behar dut orain?” galdezka. Eta ez behin, bitan, edo hirutan... ume autonomo xamarrek genituelakoan geunden! Kar-kar... Bitartean gu, lan egiteko asmotan eseri, baina ahots txiki bat deika berriro ere, altxa, dudak argitzen saiatu, eseri berriro ere, beste duda bat, altxa... Lantokian bi ordutan egiten duzuna, etxean bikoiztu egiten zaizu denbora

eta are gehiago zure lanak ordenagailuarekin zerikusirik ez duenean. Goiza nola edo hala igarotzen den bitartean, asteko menua planifikatzeko eta bazkaria prestatzeko garaia iristen da konturatzerako. Ze, aste osoko erosketak ere egin behar dira, ahal den neurrian kalea gutxien zapaltzeko. Behin kanean, erosketa poltsa besazpian hartu eta zerbait desagokia egiten ari zarenaren sentazioarekin bazoaz: “eskularruak beharko ditut? Musukoa? Ai ene...” urduritasun pixka bat sortzen da gorputzean. Ogia ere etxean egiten hasi gara, batzuetan jateko modukoa eta beste batzuetan berriz, ezinezkoa! Praktika gehiago behar dugunaren seinale. “Eta hau noiz bukatuko da, bada?” galdetzen dute seme-alabek. Ba ezin erantzun zehatzik eman. “Lasai ama, etxean ere super ondo gaude ta!” dio txikienak gainera. Argi erakutsi dute haurrek inor baino gaitasun handiagoa dutela egoera desberdinetara egokitzeke. Bejondeizuela! Egoera honetatik ere gauza onak atera direla ere ezin uka. Gizarte mailan solidaritatea loratu da

udaberri honetan. Etxean, berriz, lauok elkarrekin denbora gehiago pasatzen dugu. Haurrek, ezinbesteko liskarrak tarteko, inoiz baino konplizitate handiagoa lortu dute. Denek egunero otordu guztiak etxean egiten ditugu, eta haurrak ere sukaldean parte hartzen hasi dira. Etxea inoiz baino txukunago dago, eta hori, nahiz eta inor bisitan etortzekoa ez izan! N-leko auto zarata ere gutxiagotu egin da. Munduak arnasa sakon hartzeko aukera bikaina du orain. Bestetik, gure balkoi txikia inoiz pentsatuko ez genukeen paradisu bihurtu zaigu: otorduak egiten ditugu, haurren jolas-toki bihurtu da, bertan baitago haize pixka bat hartzeko aukera bakarria. Eta azken aldian, eskenatoki ere bihurtu zaigu! Eskaratz bereko bizilagunek kantu bateko musika emanalditxo egiten baitugu tarteka, arratsaldeko 19:30ak aldera. Bigarren solairuan baxua eta koruak, hirugarrengoa gitarrak eta laugarrengoa ahotsak, perkusioa eta soinu teknika. Ditugun baliabideekin ederki pasatzen dugu behintzat! Gaurko eguna berezi xamarra da gure etxean,

Xuharrek 8 urte bet ditu gaur eta zerbait berezia egin beharrean aurkitzen gara, egoera ere halakoxea baita: berezia. Bideo-deiek ordezkatu beharko dute oraingoan familia eta lagunuen zorion muxuak. Baina denekin ere ezin bideo deirik egin, adibidez Sorabillako aiton-amonak ez baitute internetik eta hilabete daramate bilobak ikusi gabe, ezta pantailaren beste aldetik ere. Elkartzen garen egunean berriro ere esango dute, “ume hauek hazi egin dira, ezta?” Andoingo Gurutze Gorriarekin hitzartu dugu zorion abestiren bat kanta diezaioten; Errealeko web orritik eskaera egin eta bi jokalarien zorion mezua ere lortu dugu eta arreba gynkana prestatzen ari omen zaio etxeko logeletatik. Eta ustegabeko sorpresa ere izan dugu bizilagunek euren balkoiak ere apaindu, eta ezkaratzetik abestu diotelako. Milesker, zoragarriak zarete! Azkenean, badirudi, nahiz eta etxetik ezin atera, ez dela hain urtebetetze txarra izango, alderantziz! Baina, argi dugu oparirik onena denok osasuntsu egotea dela! Animo denoi!! Zaindu zaitzte!!

Nola egiten diogu aurre COVID-19ari Gipuzkoan?

1. GIZARTE ZERBITZUAK: txoke plana

COVID-19aren harira prebentziorako zerbitzuak eta informazio-sistemak indartu dira.

Telezaintza:
900 43 43 43



- COVID-19 testuinguruan zerbitzuak jasotzeko eta orientaziorako.
- Zentroetako erabiltzaileak aldi baterako etxera itzultzeko kudeaketa lanak.

- Egoitzatako langileriari ostatu emateko zerbitzuaren informazioa eta eskabideak.
- Familiei eta langileei laguntza psikosoziala.

Herritarren arreta:



- **943 11 25 11**
- info.gizartekintza@gipuzkoa.eus
- Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta:
900 840 111

2. EKONOMIA SUSTAPENA: autonomoak eta enpresak



Jarduera ekonomikoen inguruko informazio guztia zure esku jarri dugu eta prozesuan laguntzeko entitate sare zabala osatu dugu.



Osasun laborala



Laguntza publikoak



Arlo laborala



Zerga arloa

3. OGASUNA: ordainketak eta datak

Autonomo eta enpresentzako neurriak.

Zergadun guztientzako neurriak.



Autonomoen PFEZaren ordainketa zatikatuak

Ez da autolikidaziorik aurkeztu behar (1. eta 2. hiruhilekoak).



Gerorapen berriak

300.000 euro arte handitzen da modu automatikoan geroratu daitekeen zorraren zenbatekoa.



1. hiruhilekoko zerga ordainketa

Lehen hiruhileko zerga ordainketak ekainaren 1era atzeratzen dira enpresa txiki, mikroenpresa eta autonomoentzat.



Errenta online

Herritar guztiek etxetik mugitu gabe aitorpena aurkezteko bideak ahalbidetu dira.

www.gipuzkoa.eus

Guztion lankidetzaz eta ahaleginarekin, lortuko dugu.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN